

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu, ondoko arloen arabera sailkatuta:

- **OHAR OROKORRAK (OO)**
- **HH OHARRAK (HH)**
- **LH OHARRAK (LH)**
- **DBH OHARRAK (DBH)**

#### **OHAR OROKORRAK (OO)**

##### **OO. KAFE SOLASALDIA**

Datorren asteazkenean, **azaroak 13, langile eta gurasoentzako kafe-solasaldia** izango da Ikastolaren Aretoan arratsaldeko 6retan; bertan kanpo-espazioa eraldatzeko martxan den prozesuaren berri jakiteko aukera izango da eta baita ekarpenak egitekoa ere. Zaintza zerbitzua egongo da.

##### **OO. MATRIKULAZIO KANPAINARAKO BIDEOA**

Matrikulazio kanpaina otsailean izango den arren, jada hasiak gara lanean ideiak biltzen. Aurten, gure ikastolako bitzita eta xarma erakusteko bideo bat egiteko asmoa dugu, eta horretarako langile eta gurasoen arteko auzolanean pentsatu dugu. Beraz, bideoak egiteko trebea bazara edo eta lan honetan laguntzeko prest baldin bazaude, jakinarazi mesedez idazkaritzan **azaroaren 15a** baino lehen. Mila esker zuen laguntzagatik!

##### **OO. Zarauzko Eskola Bideak: OINBUSA**

Zarauzko udaleko mugikortasun ataletik, Zarauzko ikastetxeak, osasun sailak edo udaltzaingoko bide heziketa zerbitzutik abiatutako lana uztartuz eta bateratuz. **“OINBUSA Zarauzko eskola bideak”**, proiektua jarri dugu martxan 2019-20 ikasturtean. Ikastetxeko mugikortasun ohituren azterketa eta ikasleen bizilekuak kontuan izanda, elkargune, ordutegi eta bideen mapa bat osatu da.

<https://labur.eus/oinbus-ikastola>

Ikasleen mugikortasun aktibo, osasuntsu eta autonomia bultzatu nahi da. Helburua hortaz, ikasleak ikastetxerako bidea bere kabuz, gurasoen laguntzarik gabe egitea da. Elkargune desberdinetan eta dagokien orduan taldekatzen joango dira, bakoitzak bere bidea osatzen duen bitartean.

Zalantzak eta galderak:

Udaltzaingoa / mugikortasun segurua - 943 005100 luzapena 3213 - u-egana@zarautz.eus

#### **HH OHARRAK (HH 2 - LH2)**

##### **HH 3. GURASO BILERA**

Haur Hezkuntzako 3 urteko ikasleen gurasoekin bilera egingo dugu **AZAROAREN 12AN, 17:00ETAN, GELAN.**

LAN ZERRENDA:

Sarrera

Egokitzapenaren balorazioa

Haurren ezaugarriak

Egunerokotasuna urtxintxaz baliatuz

Oharrak eta amaiera

## LH OHARRAK (LH 3 - 6)

### LH 4 NOTAK ERA DIGITALEAN

2019-2020 ikasturte honetan Lehen Hezkuntza 4ko ikasleek informe akademikoak era digitalean jasoko dituzte. Aurrerantzean helaraziko zaizkizue beharrezkoak izango dituzuen jarraibideak.

### LH 6 NI ZU =

**ATZEGIK eta GUREAK**ek bultzatzen duten programa da NI ZU = . **NI ZU =** programaren helburua Gipuzkoako eskola-haurrei desgaitasun intelektualaren errealitatearekin sentsibilizatzea da, hau da, pertsona hauen zaletasunak, ohiturak eta gaitasunak ezagutuz denak uler dezatela “ni zu bezelakoa naizela”!

Horren harira, LH 6ko ikasleak, urrian, GUREAK-eko tailerra ikusten izan ziren eta azaroaren 12an, asteartean, geletan jasoko dute beraien bisita. [Hemen dituzue tailerrera egin zuten bisitaren argazkiak.](#)

### LH-C LH 4. MAILAKO IRAKASLEEN OHARRA

Kurtso hasiera honetan aurreikusita genuen gaua pasatzera irteera bat egitea bakoitza bere gelarekin. Arrazoi desberdinen ondorioz (diruz oso garesti, data desegokiak...) beste modu batean antolatu behar izan dugu kurtso hasierako irteera hau, egun pasako irteera izatera bihurtuz.

Oraindik ez dugu zehaztu noiz eta nora izango den egun pasa hori baina jakin bezain laster adieraziko dizuegu. Besterik gabe, erabakia ulertuko duzuelakoan.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA

Estimadas familias,

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa, clasificadas en función de las siguientes áreas:

- **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**
- **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH)**
- **LEHEN HEZKUNTZA / E. PRIMARIA (LH)**
- **DBH OHARRAK / E. SECUNDARIA (DBH)**

## **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**

### **OO. KAFE-SOLASALDIA**

El próximo **miércoles, 13 de noviembre**, tendrá lugar en el Salón de Actos de la Ikastola, a las 6 de la tarde, una **café-tertulia** para trabajadores, trabajadoras, padres y madres en la que se podrá conocer el proceso de transformación del espacio exterior y realizar aportaciones. Habrá servicio de guardería.

### **OO. VIDEO PARA LA CAMPAÑA DE MATRICULACIÓN**

Aunque la campaña de matriculación será en febrero, ya hemos empezado a recoger ideas. Este año tenemos la intención de realizar un vídeo para mostrar la vida y el encanto de nuestra ikastola, y para ello hemos pensado en el auzolan entre trabajadores, trabajadoras, madres y padres. Por tanto, si eres competente para realizar vídeos o estás dispuesto/a a colaborar en este trabajo, por favor comunícalo en secretaría antes del 15 de noviembre. ¡Gracias por vuestra ayuda!

### **OO. Zarauzko Eskola Bideak: OINBUSA**

Desde el departamento de movilidad del ayuntamiento de Zarautz, encauzando y unificando el trabajo iniciado por los centros educativos, el departamento de salud y los servicios de educación vial, se ha puesto en marcha el proyecto de camino escolar **“OINBUSA zarauzko eskola bideak”** para el curso 2019-20. Después de un análisis de movilidad de las familias del colegio, teniendo en cuenta los puntos de residencia de los alumnos, se ha creado un mapa con puntos de encuentro, horarios y caminos.

<https://labur.eus/oinbus-ikastola>

Para promover una movilidad, activa, saludable y autónoma, el objetivo es que los niños-as recorran el camino por su propio pie. Para ello promoviendo que se agrupen niños en los puntos de encuentro a la hora establecida, recorriendo el camino juntos.

Preguntas y sugerencias: Udaltzaingoa / mugikortasun segurua - 943 005100 ext 3213  
u-egana@zarautz.eus

## **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH 2 – LH 2)**

### **HH 3. REUNIÓN CON PADRES Y MADRES**

Nos reuniremos con los padres y madres del alumnado de 3 años de Educación Infantil **el 12 de noviembre a las 17:00 horas en el aula.**

Orden del día:

Introducción

Valoración de la adaptación

Características de los niños y niñas

La rutina diaria con Urtxintxa

Observaciones y finalización

La reunión será en Euskara y a los padres y madres castellano-hablantes se os citará para daros la debida información.

## **LH / E. PRIMARIA (LH 3 – 6)**

### **LH 4 NOTAS EN FORMA DIGITAL**

Este curso 2019-2020 los alumnos y alumnas de 4º de Educación Primaria recibirán los informes académicos de forma digital. En lo sucesivo se os harán llegar las instrucciones necesarias.

### **LH 6 NI ZU =**

ATZEGI y GUREAK, junto con varios centros educativos, han creado un Plan Pedagógico para dar soporte al proyecto NI ZU =. El objetivo del programa NI ZU = es sensibilizar a los escolares guipuzcoanos sobre la realidad de la discapacidad intelectual, es decir, que todos y todas entiendan que "yo soy como tú".

En este sentido, el alumnado de 6º de Ed. Primaria visitaron el taller de Gureak en octubre y recibirán su visita en las aulas el martes, 12 de noviembre. [Fotos de la visita a Gureak.](#)

### **LH 4 NOTA DEL PROFESORADO**

En este comienzo de curso teníamos previsto hacer una salida para pasar la noche cada uno/a con su aula. Por diferentes razones (muy caro, fechas inadecuadas ...) hemos tenido que organizar de otra manera esta salida de comienzo de curso, convirtiéndola en una salida de un solo día. Aún no hemos concretado cuándo y dónde será, pero en cuanto lo sepamos os lo comunicaremos. Sin más, esperando que comprenderéis la decisión.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA.